

(Entzun, esiko erromaran lotuta dagon beiak orru dagi amorru bizitan ! Seme, itxain emen, kortara eroatera noia-ta). Astrapaladan doiaz gizonak zelai, solo ta landa ureztatu zear, ur-maeletatik urtendako arraiñak artzera nunbait. Errekaztoak egiñik doia ura bidexkaetan ; jolas antzo amagandik iges egin dauan ume irribarretsua dirudi.

(Ixillik ; ontzidunari deiez dago norbait, ubidean ! Egun-argia, barriz, joan doa, seme, ta ontzia itxita daukagu !) Itxura danez, lau-oinka datorren euri zoroaren gaiñez dabilkigu zerua, zamari bai'litzan. Ibaia, eroapen bage, nastu ta rrosi yaku. Emakumeak iraduz, ariñeketan datoz Ganges'tik, edarrak sorki gaiñetan.

(Argiak gertutzera noia, gaur goizetik illuntzen dau-ta ! Ez urten, seme !) Azokako bidetik ez dabil arimarik. Errekara jasten dan kalea irristakor dago ta errez labantzen. Orruz daukazu aizea ; sare artean arrapatu pizti bat dirudi banbu-ostozan burrukari.

## INGIZKO ONTZIAK

Egunero, neure ingizko ontzitzoak jaurtzen ditut, bata bestearen atzetik, ur-beera. Izki baltz andiz margotuta neure izena daroie, bai ta neure erriarena be. Eltzen diran ondartza ez-ezagunean norbaitek aurkitu ba'daiz, jakingo dau arek ni nor nazan. Ene etxeko baratzean azitako siuli-loraz be-

terik doiaz nire ontzitxoak ; eta, ziur nago, goiz-urratzean batutako lore-pipil oneik, gabea, onez elduko dira lurrera.

Ur ibillian jaurtzen dodaz neure ingizko ontzitxoak, eta begiak zerurantz jasotzen dodazanean, arat-onat dabiltzan odeiak ikusten ditut, euren oial zuriak aizez beterik dabezala... Ez dakit nik zerutiko fire zein adiskidek botaten dabezan aize-beera, nire ontziaz ibilli daitezana... Illunkeran neure esku artean arpegia gorderik, ames dagit, ames nire ingizko ontziak ur gaiñez doazala gero ta urriñago, gau erdiko izarpean. Ames-maitagarriak zuzendu daroetz, lillurakorrezko otzaratxoz gaiñezka.

20

## ARRANTZALEA

Madu ontzidunaren txalupa geldi dago aspalditik Rangun'go kaian, yute-zama banandu bariarik. Madu'k akuran edo alogereaz itxiko ba'leust bera, eun arraun eta bost edo sei aize-oial ipiñiko neuskioz, eta neuk eroango neunke oso eratsu. Ez neunke, baiña, itxasegingo azoka txaldan orreitarra, zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak zearkatu ta igaro baiño !

Alan be zuk, ama, ez dozu bazter orretan nigaitik negar egingo, ezta alan? Ez naz gero ni izango Ramatxandra lez ; arek bada, basora joanda, amalau urte egin ebazan etxera itzultzen ! Ni ipuifietako erregegai izango naiatzu; atsegin ya-